



## **AIARAKO UDALAK 2020ko IRAILAREN 17an EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA**

### **JARDUNEKO PRESIDENTEA**

Iñigo Pinedo Vadillo jauna

### **ZINEGOTZIAK**

Montse Angulo Solloa andrea  
Susana Martín Benavides andrea  
José Antonio Bartolomé Pesquera jauna  
Itxaso Gorbeña Allende andrea  
Unai Campo Arenaza jauna  
Marian Mendiguren Mendibil andrea  
Koldo Mendioroz Goldaraz jauna

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hogeiko irailaren hamazazpian, hamazazpiak eta bost direnean, Udalbatza Osoa bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. **Gentza Alamillo Udaeta** alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, eta bilera deitu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutako aurrerapenarekin. M<sup>a</sup> Del Carmen Rojo Pitillas andrea da idazkaria.

### **EZ DIRA BERTARATU:**

Gentza Alamillo Udaeta jauna  
Karmele Población Martínez andrea  
Iratxe Parro Uzquiano andrea

### **IDAZKARIA**

M<sup>a</sup> Del Carmen Rojo Pitillas andrea

Alkate jaunak ongi-etorria eman die guztiei, eta, beste iruzkinik egin gabe, **GAI-ZERRENDAN** jasotako puntu hauek jorratzeari ekin diote:

#### **1.- Onestea, hala badagokio, 2020ko uztailaren 23ko ohiko osoko bilkuraren akta.-**

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) hartu du hitza, eta zehaztu du, Karmele Población Martínez zinegotzi andreak Zorroza enpresaren kaxa elektrikoari buruz galdetu zuenean, hodi batzuk estali gabe zeudela aipatu zuela.

Parte-hartzeak amaitutakoan, aho batez erabaki da aipatutako akta onestea.

**2.- Udalbatzaren erabaki-proposamena, 2020ko deialdian Aiarako Udalaren Irisgarritasun Plana berritzeko Eusko Jaurlaritzari egindako dirulaguntza-eskaeraren ingurukoa.** Ondoren, Udalbatzari erabaki-proposamen horren kontu eman zaio. Erabaki-proposamen hori Aiarako Udaleko Irisgarritasun Plana berritzeko Eusko Jaurlaritzari egindako dirulaguntza-eskaerari buruzkoa da, eta hau dio:

### **UDALBATZAREN ERABAKI-PROPOSAMENA**

#### **2020an IRISGARRITASUN-PLANAK EGITEKO EDO EGUNERATZEKO ETA IRISGARRITASUNA HOBETZEKO OBRAK GAUZATZEKO DIRULAGUNTZA-ESKAERA**



*HAU IKUSI DA 2020ko uztailearen 27ko Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren Agindua. Horren bidez, udalentzako, tokiko organismo autonomientzako, toki-erakunde txikientzako eta xede soziala duten onura publikoko erakunde pribatuentzako dirulaguntzak arautzen dira, eta horietarako 2020ko ekitaldirako deialdia egiten da, irisgarritasun-planak egin eta eguneratzeko eta hiri-ingurunean zein eraikinetan irisgarritasuna bermatuko duten hobekuntza-obra egiteko xedez.*

*HAU IKUSI DA udalerrri honetako Irisgarritasun Plana eguneratzeko udal honek eskatutako aurrekontua, honako enpresa honi: ESTUDIO DE ARQUITECTURA Y URBANISMO José Luis Fernández de Gaceo y Angel Ruiz Golvano.*

*Aurreko guztia dela eta, Udalbatza Osoak honako **ERABAKI** hau onetsi dadin proposatu du:*

**Lehenengoa.**- *Deialdi horretara aurkeztea dirulaguntza bat eskatzeko “AIARAKO (ARABA) UDALAREN IRISGARRITASUN PLANA BERRIKUSTEKO”, 16.758,50 euroan, BEZa barne (13.850,00 euro, gehi % 21eko BEZaren beste 2.908,50 euro).*

**Bigarrena.**- *Dirulaguntza-eskaera aurkeztea, eskatutako dokumentazioarekin batera, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren Etxebizitza eta Arkitektura Zuzendaritzaren aurrean.*

*Arespalditza. – ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.*

*Elektronikoki sinatutako dokumentua”.*

Administrazio Batzordeekiko Harremanetarako Informazio Batzordeak, 2020ko irailaren 8ko bilkuran, aldeko irizpena eman zuen erabaki hau hartzeari zegokionez.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta aho batez erabaki du, ohiko bozketan, transkribatutako erabaki-proposamena onestea, idatzita dagoen moduan.

**3.- Udalbatzaren erabaki-proposamena, babestutako udal-ondasunen katalogoaren aldaketa behin betiko onesteari buruzkoa, katalogo horretatik kentzeko Arespalditzan dagoen Cerrajería jauregiko eraikin osagarri eta isolatuak.-** Jarraian, babestutako udal-ondasunen katalogotik Arespalditzan dagoen Cerrajería jauregiko eraikin osagarri eta isolatuak kentzeko aldaketaren behin betiko onespeneri buruzko erabaki-proposamenaren berri eman zaio Udalbatzari.

### **“OSOKO BILKURAREN ERABAKI-PROPOSAMENA**

**ONESTEA AIARAKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO BABESTUTAKO UDAL-ONDASUNEN KATALOGOA BEHIN BETIKO ALDATZEA, ARESPALDITZAN DAGOEN CERRAJERÍA JAUREGIKO ERAIKIN OSAGARRI ETA ISOLATUAK KATALOGOTIK KENTZEKO**



**HAU IKUSI DA.-** 2020ko maiatzaren 7ko 2020/198 Dekretua, zeinaren bidez hasiera eman zitzaion Cerrajería jauregiko eraikin osagarri eta isolatuaren aurreko ekonomikoa deklaratzeko espedienteari. Eraikin hori babestutako (oinarrizko babes) udal-ondasun higiezin da, eta indarreko Aiarako Arau Subsidiarioetan 571. zenbakiarekin katalogatu zen.

**HAU IKUSI DA.-** Udal-teknikariak 2020ko apirilaren 22an emandako txostena. Bertan adierazten da eraikin hori udal-babeseko (oinarrizko babes) ondasun higiezin dela, eta indarreko Aiarako Arau Subsidiarioetan 571. zenbakiarekin katalogatuta dagoela.

**HAU GERTATU DA.-** Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 100. artikulua eta horrekin bat datozen gainerako artikuluen arabera, Udalaren babes duen ondasun bat katalogotik ateratzeko espedienteari hasiera emateko organo eskuduna Udala bera da, legeak ezarritako prozedurarekin bat.

**HAU GERTATU DA.-** Udaleko teknikarien txostenak ikusita, begi-bistakoa da eraikinak bizi duen aurre-egoera erabatekoa; beraz, pentsatzekoa da desagertu egin direla udal-ondararako dokumentu berezi eta interesgarri guztiak, lehenago aurki zitezkeenak eta eraikina Udalak babestutako ondasunen artean katalogatzea ekarri zutenak.

**HAU GERTATU DA.-** Eraikinaren egoera hori izanik, oso zaila da zaharberritzea, aipatutako katalogazioa egitea ahalbidetu zuten eraikuntza- edo apaindura-elementu horiek ukitu gabe mantentzeko. Izan ere, eraikuntza ikusita, bistan dago elementu horiek ez daudela.

**HAU GERTATU DA.-** 2020ko ekainaren 15ean eginiko osoko bilkuran hasieran onetsi zuen udalerrian babestutako ondasunen katalogoa aldatzea, zehazki, aipatutako eraikina desafektatzeko.

**HAU AINTZAT HARTU DA.-** Erabaki hori Arabako Foru Aldundiaren Arkitektura Ondare Historikoko Zerbitzuari eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Ondarearen Zuzendaritzari jakinarazi zitzaion, txostena egin zezaten hilabeteko epean.

**HAU AINTZAT HARTU DA.-** 2020ko uztailaren 10ean hasierako onespeneri buruzko iragarkia argitaratu zen ALHAOn. Halaber, jendaurrean ikusgai jartzeko hogeita hamar egun balioduneko epea ireki zen.

**HAU AINTZAT HARTU DA.-** Ez da inolako alegaziorik aurkeztu aipatutako erabakiaren aurka.

**HAU AINTZAT HARTU DA.-** Hasierako onepen-erabakia eraikinaren jabeei jakinarazi zitzaion, eta horiek ez dute inolako alegaziorik aurkeztu.

**HAU AINTZAT HARTU DA.-** Euskadiko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak ezarritakoa.

Aurreko guztia dela eta, Udalbatza Osoak honako **ERABAKI** hau onetsi dadin proposatu du:



**LEHENENGOA.-** Behin betiko onestea Aiarako arau subsidiarioetako babestutako udal-ondasunen katalogoaren aldaketa, Cerrajería jauregiko eraikin osagarri eta isolatuak desafektatuta. Cerrajería jauregia udal-babeseko (oinarrizko babesa) ondasun higiezin da, eta indarreko Aiarako Arau Subsidiarioetan 571. zenbakiarekin katalogatu zen.

**BIGARRENA.-** Erabaki honi dagokion iragarkia argitaratzea ALHAOn.

**HIRUGARRENA.-** Erabaki hau jakinaraztea higiezinaren jabeei, ezagutu dezaten eta dagozkion ondoreak izan ditzan.

Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: *Gentza Alamillo Udaeta.*

*Elektronikoki sinatutako dokumentua”.*

Gai horrek aldeko irizpena lortu zuen 2020ko irailaren 8ko Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak eta Ingurumena Informazio Batzordean.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta aho batez erabaki du, ohiko bozketan, transkribatutako erabaki-proposamena onestea, idatzita dagoen moduan.

**4.- 2019ko Kontu Orokorraren onespenerari buruzko Udalbatzaren erabaki-proposamena.** Jarraian, 2019ko Kontu Orokorraren onespenerari buruzko erabaki-proposamenaren kontu eman zaio Udalbatzari. Erabaki-proposamen horrek honela dio:

**“2019ko KONTU OROKORRAREN ONESPENAREN INGURUKO  
UDALBATZAREN ERABAKI-PROPOSAMENA**

**HAU IKUSI DA.-** 2019 ekitaldiko Aiarako Udalaren Kontu Orokorra, espedientean adierazitako eta horri erantsitako dokumentazio guztiarekin batera, indarreko araudiaren arabera.

**HAU IKUSI DA.-** Kontuen Batzorde Bereziak eta Ogasun, Funtzio Publiko eta Barne Erregimeneko Batzorde Iraunkorrek, 2020ko ekainaren 9an, 2019 ekitaldiko Aiarako Udalaren Kontu Orokorraren aldeko irizpena ematea erabaki zuen, eta hori jendaurrean jartzea 15 eguneko epean, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean (ALHAO) iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, epe horretan zehar, interesdunek egokitzat jotzen dituzten erreklamazioak, eragozpenak edo oharrak aurkezteko.

*Kontu Orokorra 2020ko uztailaren 10eko 77. ALHAOn argitaratu da.*

**HAU IKUSI DA.-** Udaleko Erregistro Orokorraren arduradunak egindako txostenaren arabera, 2020ko uztailaren 13aren eta 2020ko uztailaren 31ren artean, interesdunek ez dute 2019ko Kontu Orokorrari buruzko idatzirik aurkeztu.

**HAU AINTZAT HARTU DA.-** Kontuen Batzorde Bereziak eta Ogasun, Funtzio Publiko eta Barne Erregimeneko Batzorde Iraunkorren txostena eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.e) artikuluan ezarritakoa.

*Aurreko guztia dela eta, Udalbatza Osoak honako ERABAKI hau onetsi dadin proposatu du:*



**LEHENENGOA.-** *Onestea 2019 ekitaldiko Aiarako Udaleko Kontu Orokorra.*

**BIGARRENA.-** *Onetsitako Kontu Orokorra bidaltzea Herri Kontuen Euskal Epaitegira, kontua osatzen duten dokumentu guztiekin batera. Hori guztiori Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 63.5 artikulua arabera.*

*Arespalditzan.- ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.*

*Elektronikoki sinatutako dokumentua”.*

Era berean, adierazi da Kontu Batzorde Bereziak eta Ogasun, Funtzio Publiko eta Barne Erregimeneko Batzorde Iraunkorrak zehaztu zuela, 2020ko irailaren 8ko bilkuran, Kontuaren jendaurreko epean ez zela Erregistro Orokorra alegaziorik heldu.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta erabaki du (EAJ-PNV udal-taldeko ordezkarien aldeko botoarekin eta EH BILDU udal-taldeko ordezkarien abstentzioarekin) transkribatutako erabaki-proposamena onestea, idatzita dagoen moduan.

**5.- Kreditu gehigarriaren 3/2020 espedientearen eta Idazkaritza eta Kontu Hartzailtzaren txostenaren kontu ematea, Aurrekontu Egonkortasuna betetzeko.-**

Jarraian, Udalbatzari kreditu gehigarriaren 3. espedientearen berri eman zaio, zeina diruzaintza-gerakin likidoarekin finantzatu den eta 2020/397 Alkatetza Dekretuaren bitartez onetsi den. Aipatutako Alkatetza Dekretu horrek honela dio:

**"HAU IKUSI DA.-** *2019 ekitaldiko Aurrekontuaren likidazioaren arabera beharrezkoa dela diruzaintza-gerakinaren zati bat erabiltzea gastu orokorretarako, hainbat gastu-partida osatu edo sortzeko, eta 2021 ekitaldiaren aurrekontua onetsi arte itxaron ezin duten eta Alkatetzaren Memoriaren arabera ezinbestekoak diren ordainketak egiteko.*

**HAU AINTZAT HARTU DA.-** *Arabako Lurralde Historikoko Toki Entitateen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauak xedatutakoa eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak xedatutakoa.*

*Alkatetzak honako EBAZPEN hauek eman ditu:*

**Lehenengoa.-** *Onestea ondoren zehaztutako kreditu gehigarriak:*

<b>PARTIDA</b>	<b>IZENA</b>	<b>ZENBATEKOA (€)</b>
151.227.072	IRISGARRITASUN PLANA EGUNERATZEA	16.758,50 €

**GUZTIRA: 16.758,50 €**

*Zenbateko hori jarraian zerrendatutako baliabideen bitartez finantzatu da. Hortaz, espedientea orekatuta dago eta ez du defizitik izango:*



<u>DIRU-SARREREN</u>	<u>IZENA</u>	<u>ZENBATEKO</u>
<u>PARTIDA</u>		<u>A (€)</u>
87001	GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA-GERAKINA	16.758,50 €
	<b>GUZTIRA .....</b>	<b>16.758,50 €</b>

*Onetsitako kreditu gehigarrien kopurua finantzatzen dituzten diru-sarreraren kopuru osoaren berdina da.*

**Bigarrena.**- Kontu Hartzaitzak aldaketak egin ditzala aurrekontuaren gastu-egoeran, eta aldaketen eragina berehalakoa izan dadila.

**Hirugarrena.**- Udalbatzari Dekretu honen berri ematea hurrengo osoko bilkuran.

ALKATE-UDALBURUA,  
Sin.: Gentza Alamillo Udaeta.

Nire aurrean, IDAZKARIA,  
Sin.: María Del Carmen Rojo Pitillas.

*BEHIN-BEHINEKO DIRUZAINA,*

*Sin. - Clara Furundarena Udaeta.*

*Elektronikoki sinatutako dokumentua*”.

Era berean, Udalbatzari 2020ko irailaren 9ko Kontu Hartzaitzaren txostenaren berri eman zaio, kreditu gehigarria finantzatzeko diruzaintza-gerakina erabiltzeagatik aurrekontuen egonkortasuna ez-betetzeari buruzkoa. Honako hau dio:

**“KONTU-HARTZAITZAREN TXOSTENA**

**GAIA:** *Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinaren kargurako aurrekontu-aldaketa.*

*Aiarako Udaleko Kontu Hartzaitza karguari berez dagozkion funtzioak oinarri hartuta, eta bat etorritz 17/2014 Foru Arauak aldatutako Arabako Toki Erakundearen Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauak diruzaintza-gerakinaren erabileran eragindako aldaketekin (horien eraginez, gerakinaren kargurako kreditu-aldaketa bat onetsi ahal izateko, beharrezkoa izango da Kontu Hartzaitzaren txosten bat helaraztea Udalbatzari, aldaketaren helburua egonkortasuna dela jakinarazteko), honako txosten hau egiten da, bi eranskinez osatua dagoena:*

- I. eranskina: gerakina erabiltzeko proposamena, beste kreditu batzuk gaitzeko.
- II. eranskina: Kontu Hartzaitzaren txostena, diruzaintza-gerakinekin gastuak finantzatzeagatik egonkortasuna bete dadin.





## **I. ERANSKINA: GERAKINA ERABILTZeko PROPOSAMENA**

*HONAKO ESPEDIENTE HAU BAINO LEHEN GASTATU EZ DEN 2019 EKITALDIKO LIKIDAZIOAREN GASTU OROKORRETARAKO DIRUZAINZA-GERAKINA: 272.336,41 €. Gainontzekoa honako espediente hauentzat erabili da: kreditu gehigarriaren 1/2020 espedientea (40.000,00 €), kreditu-gerakina sartzeko 1/2020 espedientea (8.920,60 €), kreditu-gerakina sartzeko 4/2020 espedientea (6.250,86 €) eta kreditu gehigarriaren 2/2020 espedientea (262.877,06 €).*

**ERABILTZeko PROPOSAMENA: 16.758,50 €**

*Honako aurrekontu-aplikazio hau sartzeko:*

151.227.072 “Irisgarritasun Plana eguneratzea”: 16.758,50 €

**ZENBATEKO OSOA: 16.758,50 €**

## **II. ERANSKINA: IDAZKARITZA ETA KONTU HARTZAILETZAREN TXOSTENA, EGONKORTASUNA EZ-BETETZEARI BURUZKOA**


### **I. TXOSTENAREN OINARRIAK**

*Arabako Toki Erakundearen Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauaren 7.1 artikuluan xedatutakoaren arabera (17/2014 Foru Arauak emandako idazketan), “aurrekontu egonkortasunaren zein zor publikoaren helburua edo gastu arauarena bete ezean, ekonomia eta finantza plana formulatu beharko du horiek bete ez dituen administrazioak, urtebetean helburuak eta gastu araua betetzea ahalbidetuko baitu”.*

*Bestalde, Foru Arau beraren 7.3 artikulua hau ezartzen du: “aurrekontu egonkortasunaren helburua ez betetzea diruzaintzako gerakinen bidez finantzatutako inbertsio gastuen ondorio bada, ekonomia eta finantza planaren ordez kontu hartze zereginak burutzen dituen organoaren txostena aurkeztu beharko zaio dena delako udalbatzari horren berri emateko, bai eta toki korporazioaren finantza iraunkortasunaren analisisa eta ebaluazioa ere, gutxienez honakoak jasoko baititu:*

- a) Erakundearen zein haren menpekoen aurrekontu egonkortasunaren helburuak.*
- b) Diru sarreren eta gastuen partida nagusien proiektzioa, joera bilakaera aintzat harturik, hau da, aldaketa onartzen ez duten politikak, adibidez, dagokion aldirako aurreikusitako neurrien inpaktua.*
- c) Diru sarreren eta gastuen proiektzioaren oinarri izango diren suposizio nagusiak.*
- d) Diruzaintzaren gerakinak agortzeko momentuan dagoen aurrekontu eta finantza egoera.*
- e) Inbertsioaren funtzionamenduak gastu arruntaren gaineko inpaktua ekarriko du. Txostena kreditu aldaketaren espedientearen zati izango da.*

*Udalbatzak egindako bilkuraren akta, kontu hartzeko organoaren txostena eta lagungarri den dokumentazioa Arabako Foru Aldundian toki erakundeekin loturikoetan eskumena duen sailera bidaliko dira, eta berak, 30 eguneko epean beharrezko den informazio osagarria eskatu ahalko du edo neurri osagarriak hartu, zeinen artean ekonomia eta finantza plana lantzeko eskaera egon daitekeen, toki erakundearen finantza iraunkortasunaren berme gisa.*



*Epe hori pasatu bada eta Arabako Foru Aldundiak esanbidezko ebazpena eman ez badu, espedientea izapidetzen jarraitu ahalko da”.*

**EREMU SUBJEKTIBOA:**

*Txosten honen helburu da txosten hau barne hartzen duen espedientearen aurrekontu-aldaketa Aiarako Udaleko diruzaintza-gerakina erabiliz finantzatzeak eragindako ezegonkortasun-egoera aztertzea.*

**HELBURUAK:**

*Proposatutako aurrekontu-aldaketaren finantzaketak, diruzaintza-gerakinaren bidez, egonkortasun-printzipioa hausten du. Halere, ez-betetze horren izaera ez da egiturazkoa, koiunturala baizik.*

*Horretarako, aurrekontuaren magnitudeak azertu behar dira, eta txosten honen xedea da honako helburu hauek egiaztatzea:*

- *Aurrezki garbi positiboa.*
- *Diruzaintza-gerakin positiboa.*
- *Zorpetze kontsolidatuaren maila, ekitaldi bakoitzean ezarritako mugen azpitik.*
- *Aurrekontuen egonkortasun kontsolidatua, superabitarekin edo finantzaketa-gaitasunarekin (KSEren baldintzetan).*
- *Gastu-araua betetzea.*

*Arabako Toki Erakundearen Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauaren 7. artikuluko 3. atalean xedatutakoaren arabera (17/2014 Foru Arauak emandako idazketan), honako txosten hau honela egituratuko da:*

- 1.- Egungo egoeraren diagnostikoa; atal horretan erakundearen **aurrekontuen egonkortasun-helburuak** betetzen diren aztertuko da.*
- 2.- **Gastuen eta diru-sarreraren egoeren proiektzioak.***
- 3.- Inbertsioaren funtzionamenduak ekarriko duen **gastu arruntaren gaineko eragina.***

**II. EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKO EKONOMIKO-FINANTZARIOA: AURREKONTU-EGONKORTASUNEN HELBURUAK**

*2019 ekitaldirako onetsitako azken likidazioan lortutako datuetatik, honako datu hauek dira nabarmentzekoak:*

<b>MAGNITUDEA</b>	<b>ZENBATEK OA</b>	<b>BETETZEA/EZ-BETETZEA</b>
<i><b>Aurrezki garbi doitua</b></i>	<i><b>361.604,53 €</b></i>	<i><b>POSITIBOA</b></i>
<i><b>Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina</b></i>	<i><b>590.384,93 €</b></i>	<i><b>POSITIBOA</b></i>
<i><b>Aurrekontuaren emaitza</b></i>	<i><b>272.839,66 €</b></i>	<i><b>POSITIBOA</b></i>
<i><b>Zorpetze-maila</b></i>	<i><b>0</b></i>	
<i><b>Aurrekontu-egonkortasuna</b></i>	<i><b>305.675,20 €</b></i>	<i><b>BETETZEAREN SUPERABITA</b></i>
<i><b>Gastu-araua</b></i>	<i><b>20.388,08 €</b></i>	<i><b>% 4ko EZ-BETETZEA</b></i>

*Gastu-araua ez betetzeari dagokionez, 2020ko maiatzaren 21eko Udalbatzaren osoko bilkuran eman zen ez-betetze horren kontu, eta ez-betetze horrek honela dio:*





**“...8.- GASTU-ARAUA EZ BETETZEARI BURUZKO TXOSTENA.**

Aurrekontu Egonkortasuna eta Finantza Iraunkortasunari buruzko 38/2013 Foru Arauaren 7. artikuluko 4. atalak (ekainaren 18ko 17/2014 Foru Arauak emandako idazketan) hau ezartzen du: “gastu araua betetzen ez duten erakundeek, planaren orde, Kontuhartzaitzak sinatutako komunikazioa bidali ahalko diote udalbatzari, eta hartan, erakundearen finantza iraunkortasuna aztertu, ebaluatu eta egiaztatuko da. Horretarako, ordea, erakundeek baldintza hauek ere bete behar dituzte:

- Diruzaintzako gerakinak eta aurrezki garbi positiboa erabiliz, ez-betetzea gertatu den ekitaldiko aurrekontua likidatu izana edo, hala badagokio, likidatzeko aurreikuspena izatea.
- Hurrengo ekitaldirako defizitaren eta zor publikoaren helburuak betetzea”.

Txosten honetan eta 2019 ekitaldirako Udalaren likidazioa osatzen duten gainerako dokumentuetan jasotakoaren arabera, defizit eta zor publikoaren helburu guztiak betetzen dira, baita diruzaintza-gerakina eta aurrezki garbi positiboa eskuratzearen helburua ere.

Gastu-araua ez betetzea gastuak bere gain hartzeagatik izan da, bai gastu arruntak bai Udalaren baliabide propioekin egindako inbertsioen gastuak. Halere, Udalak gastuen areagotze hori bere baliabideak erabiliz bere gain hartu duenetan ere, aurrezki garbiak positiboa izaten jarraitu du, 361.604,53 eurokoa. Beraz, erakunde honen finantza-iraunkortasuna bermatu da, eta txosten honetan jasotako datuek hala diote...”.

**III. GASTUEN ETA DIRU-SARREREN EGOEREN PROIEKZIOAK**

Aldi horretarako Ekonomia eta Finantza Planean zifrak proiektatzeko aukera ematen diguten aldagaiak eta neurriak zehaztasunez ezartzeko, honako EGOERA posible hau ezartzen da:

- Egoera konplexua da, COVID-19aren pandemiatik eratorritako krisialdiarengatik, eta, horren ondorioz, 2020rako tokiko diru-sarrerak murriztu egin dira, batik bat TEFFFarenak. Bestalde, bi dirulaguntza lortu dira udal-obrak egiteko, LEADER 2019 programaren kargura, eta dirulaguntza horiek diru-sarreraren murrizketa arindu dute. Gainera, dirulaguntza-eskaeraren bat gehiago ere izapidetuko da, esaterako, aldaketa-espeditente hau estaltzekoa.
- Gastuei dagokienez, printzipioz murrizketek bere horretan jarraituko dute eta zuhurtziaren irizpidearekin jarraituko dugu, bai langileen gastuei dagokienez bai bestelako gastuei dagokienez, zeinak estatuko aurrekontu orokorren legeetatik eta aurrekontu-egonkortasunaren helburuak betetzearen ondoriozko murrizketetatik datozen (gastu-araua, gastu-muga, egonkortasuna eta finantza-iraunkortasuna).

**MAGNITUDE NAGUSIEN BILAKAERA**

Adierazitako ekitaldietan aztertutako magnitudeen bilakaerak honako hauek dira:

<b>HELBURUAK</b>	<b>2018</b>	<b>2019</b>
<b>Aurrekontu-egonkortasuna</b>	302.088,60	305.675,20
<b>Egonkortasuna/Diru-sar. z-finantzari oen %</b>	% 12,64	% 12,75
<b>Gastu-araua</b>	<b>-122.672,80</b>	<b>20.388,08</b>



Zorpetzea	0	0
Aurrezki garbi doitua	553.209,91	361.604,53
Aurrezki garbi/Diru-sar. arrunten %	% 24,90	% 15,56
<b>DIRUZAINZAKO SOBERAKINA</b>	588.263,66	590.384,93

#### **IV. DIRUZAINZTA-GERAKINA AGORTU DEN MOMENTUKO AURREKONTU-ETA FINANTZA-EGOERA**

##### **III- C.1 DIRUZAINZTA-GERAKINA**

Diruzaintza-gerakin positiboak erakundean epe laburrerako metatutako likidezia islatzen du, alegia, hurbileko etorkizunean gastua finantzatzeko erabilgarri dagoena.

##### **Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakin doitua**

Gastu orokorrei dagokion gerakina aurrekontuari ezartzeke dauden hartzekodunen datuekin eta ordaintzeke dauden diru-sarreraren itzultzeekin bat dator. Horrek magnitude honen egoeraren irudi erreala goa eskaintzen digu. Magnitude horrek toki-erakundearen epe laburreko benetako likidezari buruzko informazioa eskaintzen digu.

##### **III-C.2 AURREZKI GARBIA**

Aurrezki garbiak Udalbatzak duen zorpetze-gaitasunaren berri ematen digu. Aurrezki garbia negatiboa bada, erakundeak ez du izango epe luzerako mailegu-eragiketa berriei aurre egiteko gaitasunik. Aurrezki garbia positiboa bada, epe luzerako mailegu-eragiketa berriei aurre egiteko zer gaitasun duen iragarriko digu, bai eta zer zenbatekoarekin eta zein baldintzatan hitzartu daitezken ere. Halere, magnitude horrek erakundearen zorpetze-gaitasunari buruzko informazio zehatzagoa eman dezan, Foru Arauak xedatutakoaren arabera kalkulaturako zenbatekoa egokitu beharko litzateke, emaitza horretatik ezohiko izaera duten diru-sarrerara ez-errepikakorrak kenduz.

##### **III-C.3 ZORRA FINANTZA-ERAKUNDEEKIN**

Zor bizia erakundearen finantza-kaudimena kalkulatzeko adierazle garrantzitsua da. Kaudimen-arazoak gehiegizko zorpetzearen ondorioz gerta daitezke. Gehiegizko zorpetze horrek, finantza-zama areagotzen du, eta, gainontzeko gastu orokorrek batera, ekarriko du erakundearen diru-sarrerara arrunt soilekin gastuei aurre egin ezin izatea, eta, hortaz, aurrezki garbi negatiboa sortuko da.

##### **III- C.4 AURREKONTU-EGONKORTASUNA**

Aurrekontu-egonkortasunak erakundeak duen finantzaketa-gaitasun edo -beharraren berri emango digu, eta, horrek ekarriko du zorpetzearen gorakada murriztea, urte bakoitzean amortizatzen den kopuruaren ginetik (KSE 95 terminoetan kalkulaturak). Erakundeak finantzaketa-beharra badu (dituen gastu ez-finantzarioak dituen diru-sarrerara ez-finantzarioak baino altuagoak badira), erakundeak kanpoko finantzaketa beharko du (zorpetzea) gastuei aurre egiteko.

Erakundeak finantzaketa-gaitasuna badu (dituen gastu ez-finantzarioak dituen diru-sarrerara ez-finantzarioak baino baxuagoak dira), horrek erakundeak zorrak kitatzeko eskura dezakeen marjina adieraziko du.

##### **III-C.5 GASTU-ARAU**

Gastu-araua arau fiskala da. Haren helburua gastu konputagarria mugatzea da, ekitaldi ekonomiko batetik bestera hazten bada, soilik aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako onetsitako portzentajea hazi dadin eta, modu horretan, aurrezki publiko handiagoa lortzea, gastuaren areagotzea neurri osagarriekin batera ez datorren gastua handitzeko oztopo bat ezarri. Aurtengo ekitaldirako, magnitude hori 2019rako aurrekontu-likidazioarekin zehaztuko da.



### **III-D. MAGNITUDEEN BILAKAEREN ONDORIOAK**

*Gastuen eta diru-sarreren egoeren kapituluetan erabilitako datuetatik, kalkulatzen da diruzaintza-gerakinarekin finantzatutako aurrekontu-aldaketaren finantzaketak ez dakarrela egiturazko desorekarik erakunde honentzat, koiunturala baizik. Hortaz, urtebeteko eperako helburuak berriro ere bete dira, eta ez da Ekonomia eta Finantza Plan bat sortu behar izango.*

### **V. INBERTSIOAREN FUNTZIONAMENDUAK EKARRIKO DUEN GASTU ARRUNTAREN GAINEKO ERAGINA**

*Erabilitako proiektzioetatik, aurrezki arrunt garbia positiboa izango dela kalkulatzen da; beraz, honako kreditu-aldaketa honekin finantzatu beharreko gastu (edo inbertsio) horren ondorioz etorkizunean sor daitekeen gastu arruntari erakundeak sortutako diru-sarrera arruntekin aurre egin ahalko litzaioke.*

*Era berean, zorpetze-ratioa aurrekontu-ekitaldi bakoitzerako ezarritako helburuaren azpitik dago (ez dago zorpetzerik). Hortaz, bi datuak batera aztertuta, ondorioztatzen dugu erakundearen etorkizuneko finantza-iraunkortasuna ez dela arriskuan jarriko.*

*Gainera, aintzat hartu behar da proposatutako aldaketek, beren horretan, ez dutela etorkizuneko ekitaldietako gastu arruntaren areagotze nabarmenik sortuko.*

*Honako txosten hau kreditu-aldaketarako espedientearen parte izango da.*

*Osoko bilkuraren akta, honako txosten hau eta euskarriztat balioko duen gainerako dokumentazioa Arabako Foru Aldundiko tokiko erakundeen arloan eskumena duen sailari bidali beharko zaizkio. Azken horrek 30 eguneko epea izango du beharrezkoa den informazio osagarria eskatzeko, bai eta neurri osagarriak hartzeko ere, besteak beste, Ekonomia eta Finantza Plan bat prestatzea, tokiko erakundearen finantza-iraunkortasuna bermatzeko.*

*Arespalditzan.-*

*IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA.- Sin.- Carmen Rojo Pitillas.*

*Elektronikoki sinatutako dokumentua”.*


Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**6.- Kredituak gaitzeko 1/2020 espedientearen kontu ematea.-** Jarraian, kredituak gaitzeko 1/2020 1 zenbakiko espedientearen kontu eman zaio Udalbatzari. Espediente hori 2020/405 Alkatetza Dekretuaren bidez onetsi zen, zeinak honako hau dioen:

*“HAU IKUSI DA.- 2020rako indarrean dagoen udal-aurrekontuko gastuen egoeran ordainketa-kredituak gaitzeari buruzko espedientea (22.746,34 euro); kreditu horiek sortzeko konpromiso sendoak lortu dira, hots, 2020ko ekainaren 9ko Foru Gobernu Kontseiluaren 242/2020 Erabakia, zeinaren bitartez udal honi 22.746,34 euroko laguntza ematen zaion obra txikiak gauzatzeko 2020ko programaren bidez, “igerilekuko aldageletako estalkia aldatzeko”. Obra horren guztizko aurrekontua 34.987,81 eurokoa izan zen.*

*HAU AINTZAT HARTU DA.- Idazkari kontu-hartzaileak adierazitakoaren arabera, Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuari buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 31. artikulua eskatzen dituen baldintzetara egokitzen da espedientea, bai eta Aurrekontu Exekuzioaren Udal Arauak ezartzen duenera ere.*

Alkatetzak honako **EBAZPEN** hauek eman ditu:



**Lehenengoa.-** Onestea aipatutako espedientea eta horretatik eratorritako diru-sarreraren eta gastuen egoeren aldaketak, zeinak jarraian zerrendatzen diren:

**DIRU-SARREREN EGOERA**

Diru-sarreraren partida	Hasierako esleipena	Igoera	Esleipena guztira
71602	0,00 €0,00 €	22.746,34 €	22.746,34 €

**DIRU-SARREREN IGOEREN ZENBATEKOA GUZTIRA: 22.746,34 €**

**GASTUEN EGOERA**

Gastuen partida	Lehenko kreditua	Gaikuntzaren ondoriozko igoera	Kreditua guztira
342.609000	12.241,48 €	22.746,34 €	34.987,82 €

**GAITUTAKO KREDITUEN ZENBATEKOA GUZTIRA: 22.746,34 €**

**Bigarrena.-** Honako ebazpen hau irmoa eta betearazlea denez eta ez duenez beste izapiderik behar, Kontu Hartzaitzak erakundearen aurrekontuko gastuen egoera-orrian aldaketak egitea, berehalako ondoreekin.

**Hirugarrena.-** Hurrengo osoko bilkuran horren kontu ematea.

O. E.

JARDUNEKO ALKATEA,

IDAZKARIA,

Sin.: Iñigo Pinedo Vadillo.

Sin.: M<sup>a</sup> Del Carmen Rojo Pitillas.

Elektronikoki sinatutako dokumentua".

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**7.- Alkatetza Dekretuen berri ematea.-** Jarraian, Udalbatzari 2020/328 eta 2020/401 (biak barne) bitarteko Alkatetza Dekretuen berri eman zaio, eta horien helburua, laburki azalduta, honako hau da:

**"ALKATETZA DEKRETUEN ZERRENDA.-**

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/328.- Asasam. Emandako dirulaguntzaren % 80ko ekarpen ekonomikoa.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/329.- Gurasoen Elkartea Babio. Emandako dirulaguntzaren % 90eko ekarpen ekonomikoa.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/330.- Dekretu bikoiztuaren akatsa (2020ko TMIZren errolda onestea).

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/331.- Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren



errola onestea, 2020. urtekoa.

ALKATETZA DEKRETUA- 2020/332.- S.L.L. Obrako hondakinak kudeatzeagatik fidantza berria eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/333.- Lantenoko AB. Lantenoko atsedenekua egokitzeko obrarako eskatu zen obra-lizentziari uko egitea onestea.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/334.- I.F.R. Zalditegia handitzeko obrak (III. fasea) hasteko baimena ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/335.- Luiaondoko AB. Nerbioi ibaian sedimentazioak garbitzeko obrarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/336.- S.SM.L. Izoriako baserria birgaitzeko obrarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/337.- Aiarako Kuadrilla.- Gastu orokor eta beste batzuegatiko ekarpen ekonomikoak onestea, 3/2020.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/338.- Asfaltos y Const. Morga eta Estibaliz Aldama. Obra-kontratuaren inguruko espediente eztabaidagarriaren inguruan.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/339.- E.A.M.- Gorobelego perretxikoen aprobetxamenduaren espedienteak kontsultatzea eta informazio publikoa eskuratzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/340.- Aiarako Kuadrilla.- HHSen kudeaketarako ekarpen ekonomikoa onestea, 2020/3.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/341.- DINAM Ingeniería SL. Arpin Europa SA, Sunor 2002 SL eta Zorroza Gestión SL enpresen jardueraren espedienteak kontsultatzea eta informazio publikoa eskuratzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/342.- Arespalditzako Eguneko Arretarako Zentroa ixtea, 2020ko uztailaren 20tik aurrera.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/343.- E.M.H.- 2020ko hiriko OHZren hobaria ematea, familia ugaria izatea egiaztatzeagatik.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/343.- MC.G.B.- 2020ko hiriko OHZren hobaria ematea, familia ugaria izatea egiaztatzeagatik.

ALKATEA DEKRETUA - 2020/345.- Elkarkidetzaren Pentsioak. Likidatze-faktura onestea, 2020ko uztaila.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/346.- Udalbatzako kideei ekarpen ekonomikoa ematea onestea, 2020ko uztaila.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/347.- Talde politikoei ekarpen ekonomikoa ematea, 2020ko ekaina.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/348.- Langileen eta alkatearen nominen hilabeteko txostena onestea, 2020ko uztaila.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/349.- Acciona Green Energy Developments SLU. Tokiko jabari publikoko aprobetxamenduetatik tasa, 2020ko 2. hiruhilekoa.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/350.- Udalerritik ateratzeagatik Alkatetzaren eskuduntzak eskuordetzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/351.- Aranzadi Zientzia Elkartearen Emandako dirulaguntzaren % 80 ordaintzea.





ALKATETZA DEKRETUA - 2020/352.- Zorroza Gestión SL. 3. isuna jartzea eta hirigintza leheneratzeko espedientea irekitzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/353.- S.O.M. Hirigintza leheneratzeko espedientea ebaztea eta egindako obrak legezatzeko dokumentazio berria aurkeztea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/354.- Onestea erregistratutako fakturen F/2020/10 kontabilitate-zerrenda.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/355.- J.L.B.G.- Izoriako etxebizitza batean igogailua instalatzeagatik obra-hondakinak kudeatzeko fidantza eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/356.- C.I.T.- Obrarako udal-lizentzia ematea Luiaondoko etxebizitza batean trenkada botatzeko eta lurra eta pareta errematatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/357.- I.L.I.- Obrarako udal-lizentzia ematea, Murgako etxebizitza batean bainugela berrizatzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/358.- J.A.Z.G.- Obrarako udal-lizentzia ematea Luiaondoko etxebizitza batean igogailua jartzeko espaloian, fatxada margotzeko eta teilatua bernizatzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/359.- I.U.L.- Obrarako udal-lizentzia ematea Izoriako finka baterako sarbidea hobetzeko, arekak libratzeko tutua jartzearen bidez.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/360.- B.B.O.- Izorian pareta bat berdintzeko obra-lizentziaren eskaeraren espedientea iraungi dela adieraztea eta hori artxibatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/361.- Soxoko Administrazio Batzarra.- Soxoko kontzeju-aretoko estalkia konpontzeko obrarako udal-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/362.- Alkatzaren eskuduntzak eskuordetzea ezkontza zibila egiteko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/363.- L.R.R. Aparkatzeko txartela ematea (57124-145 zk.).

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/364.- A.A.A. Aparkatzeko txartela ematea (57123-144 zk.).

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/365.- TECOEL SLU. Etxaurren Ikastolarako megafonia hornitzeko kontratu txikia.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/366.- TECOEL SLU. Etxaurren Ikastolarako alarmaren sistemarako rack bateria hornitzeko kontratu txikia.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/367.- J.G.B. Olabezarren terraza birgaitzeko eta espaloia konpontzeko obrarako eta lehen erabilerarako lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/368.- L.A.V. Zuhatzako etxebizitza batean hezetasunak drainatzeko zanga bat irekitzeko obra-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/369.- J.A.B.P. Arespalditzako etxebizitza batean sarbidea ixteko obrarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/370.- J.A.B.P. Arespalditzako etxebizitza baten perimetroa ixteko obrarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/371.- J.A.B.P. Zuhatzako etxebizitza batean fatxada konpontzeko obrarako udal-lizentzia emateko dokumentazioa eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/372.- M.A.Z.L. Dokumentazio gehigarria eskatzea Murgan dagoen etxebizitza baten ondoko etxola birgaitzeko obrarako udal-lizentzia izapidetzeko.





ALKATETZA DEKRETUA - 2020/373. FJ.A.O. Etxegoieneko finka bat banatzeko lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/374.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarra.- Menagaraiko San Pedro auzoko hondakin-uren saneamendurako sarearen zati bat konpontzeko obrarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/375.- L.R.L. Zuhatzako etxebizitza baten estalkia birgaitzeko obrak hasteko baimena emateko dokumentazio gehigarria eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/376.- Zorroza Gestión SL. Espedientearen kopia bat izateko aurkeztutako eskaerei eta berrezartze-errekurtsoa eta alegazioak aurkezteko epea luzatzeko eskaerei erantzutea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/377.- Bolos Lekubatxe KK.- 2019ko dirulaguntzaren justifikazio-partziala ez dela bete egiaztatu dela adieraztea eta aipatutako dirulaguntzaren zati bat ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/378.- URRUELA SC.- Arespalditzan gaztandegi bat jartzeko obra-lizentzia emateko dokumentazio gehigarria eskatzea eta JARDUERA-LIZENTZIA ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/379.- FJ.B.U.- Aparkatzeko txartela ematea desgaitasuna duten pertsonak daramatzaten ibilgailuetarako.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/380.- AOT lanpostua sortzeari buruzko aholkularitza-zerbitzua esleitzeko dekretua.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/381.- AFA. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari dagokion likidazioa onestea, 2/2020.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/382.- Gizarte Segurantzako DN. 2020ko ekaineko kuota ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/383.- Langileen eta alkatearen nominen hilabeteko txostena onestea, 2020ko abuztua.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/384.- DEUSEZTATUA.

ALKATEA DEKRETUA - 2020/385.- Elkarkidetza Pentsioak. Likidatze-faktura onestea, 2020ko abuztua.

ALKATETZA-DEKRETUA - 2020/386.- Gizarte Segurantzako DN. 2020ko uztailleko kuota ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/387.- Udalbatzako kideei ekarpen ekonomikoa ematea onestea, 2020ko abuztua.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/388.- Talde politikoei ekarpen ekonomikoa, 2020 abuztua.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/389.- AFari dirulaguntza eskatzea euskararen bidezko sozializazio-programak finantzatzeko, 2020. urtea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/390.- JA.B.C.- Etxaurren Ikastolan garbiketa-zerbitzua indartzeko aldi baterako kontratua sinatzeko hautagaitza deuseztatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/391.- I.B.E.- Aldi baterako kontratua azkentzeagatiko amaierako likidazioaren nomina ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/392.- Luiaondoko Administrazio Batzarra.- Argi publikoak aldatzeko eta LED argiak jartzeko obrarako udal-lizentzia ematea.



ALKATETZA DEKRETUA - 2020/393.- JL.B.G.- Izoriako etxebizitza batean igogailua instalatzeko obrarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/394.- C.S.M. Aldi baterako kontratatzea ikastolako garbiketa-zerbitzua indartzeko.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/395.- Lanteno Haraneko Elkarrekin Kultural Artistikoa.- 2019ko dirulaguntzaren justifikazio partzialaren ez-betetzea frogatu dela adieraztea eta aipatutako dirulaguntzaren zati bat ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/396.- Onestea erregistratutako fakturen F/2020/11 kontabilitate-zerrenda.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/397.- Kreditu-gehirgarriaren 3/2020 zenbakiko espediente onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/398.- Udalerritik ateratzeagatik Alkatetzaren eskuduntzak eskuordetzea, 2020ko iraila.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/399.- Urruela SC.- Arespalditzan gaztandegirako eraikin bat egiteko obra hasteko baimena eta obrarako udal-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/400.- Udal-igerilekuan estalitako espazioa jartzeko obraren 2. ziuertagiria onestea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2020/401.- Asfalos y Const. Morga.- Egindako obraren amaierako likidazioaren egiaztagiria onestea.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

**8.- Gai-zerrendatik kanpoko gaiak.**- Jarduneko udalburu Iñigo Pinedo Vadillo jaunak (EAJ-PNV) Udalbatzari jakinarazi dio bilkura honen eguneko gai-zerrendan sartuko dituela puntu batzuk, premia-zerrendak direlako eta ebatzi behar direlako.

Lehenengoa.- Arabako Foru Aldundiaren obra txikiak gauzatzeko 2021eko programaren deialdiaren barnean udaletxeko bigarren solairua birgaitzeko dirulaguntza sartzeko proposamena; izan ere, gai hori jada landu zen 2020ko irailaren 8ko Hirigintza, Obra eta Zerbitzu eta Ingurumen Informazio Batzordean, baina akats bat dela eta, ez da Udalbatzaren bilkura honen gai-zerrendan sartu.

Bigarrena.- Atera da 2020ko abuztuaren 25eko Agindua, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegiturarako Sailarena, zeinaren bidez arautzen baitira, 2020 ekitaldirako, 2015-2020 aldirako EAEko Landa Garapeneko Programaren esparruan onartu ziren Leader eremuko landa-inguruko udalerrien ekonomia sustatu, garatu eta dibertsifikatzeko laguntzak. Hori horrela, plan horretarako eskaera egingo da.

Udalbatza jakinaren geratu da eta aho batez erabaki dute osoko bilkura honetako gai-zerrendan sartzeko bi puntuak. Ondorioz, horiek eztabaidatu eta bozkatu dira.

**8.1.- Obra txikiak gauzatzeko dirulaguntza eskatzea Arabako Foru Aldundiari, 2021eko deialdiaren barruan.**- Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio zein den Arabako Foru



Aldundiaren obra txikiak gauzatzeko 2021eko programaren deialdian eskaera hori sartzeko erabaki-proposamena:

**"ERABAKI-PROPOSAMENA**

**HAU IKUSI DA.-** Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialaren 2020ko uztailaren 29ko alean (85. zk.) agertu egiten dela uztailaren 28ko Foru Gobernu Kontseiluaren 356/2020 Erabakia. Horren bidez, onspena ematen zaio Arabako Lurralde Historikoko tokiko erakundeentzako laguntza lerroari, obra txikiak gauzatzeko 2021eko programaren barruan.

**HAU IKUSI DA.-** Erabaki horren 3. atalean adierazten da eskaerak aurkezteko epea amaitu egiten dela 2020ko irailaren 30eko 23:59an.

**HAU AINTZAT HARTU DA.-** Udalak udaletxeko bigarren solairua birgaitu behar du, dagoen espazio librea gehiago erabiltzeko eta herritarrei arreta hobea eskaintzeko, erabateko pribatasuna eskaintzearekin batera. Birgaitzearen helburua da eremu horretan Hirigintza Saila jartzea, hirigintza-administraria barne hartuta; horrela, Idazkaritzako bulegoaren ondoko bulegoa hutsik geratuko litzateke eta Udaleko AOT lanpostua duen pertsona egongo litzateke bertan.

**HAU AINTZAT HARTU DA.-** Udalak ez du kanpoko finantzaketarik obra hau egiteko, eta, beraz, osorik egin beharko litzateke udal-funtsekin.

EAJ-PNV udal-taldeak proposatu du eskaera egitea Arabako Foru Aldundiaren obra txikiak gauzatzeko 2021eko programaren deialdi honetan, eta aipatutako birgaitzeko dirulaguntza eskatzea.

Arespalditzan

ALKATEA.- Sin.: Gentza Alamillo Udaeta

**"ELEKTRONIKOKI SINATUTAKO DOKUMENTUA".**

Gai honen inguruko aldeko irizpena eman zen Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak eta Ingurumen Informazio Batzordearen 2020ko irailaren 8ko bilkuran.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da, eta aho batez erabaki du, ohiko bozketan, transkribatutako erabaki-proposamena onestea, idatzita dagoen moduan.

**8.2.- Leader eremuko landa-inguruko udalerrien ekonomia sustatu, garatu eta dibertsifikatzeko laguntzen eskaera.-** Jarraian, Udalbatzari jakinarazi zaio zein den Leader Programaren barnean laguntza bat eskatzeko erabaki-proposamena:

**"UDALBATZAREN ERABAKI-PROPOSAMENA**

**HAU IKUSI DA.-** Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuaren 2020ko abuztuaren 25eko Agindua, zeinaren bidez arautzen baitira, 2020 ekitaldirako, 2015-2020 aldirako EAEko Landa Garapeneko Programaren esparruan onartu ziren Leader eremuko landa-inguruko udalerrien ekonomia sustatu, garatu eta



*dibertsifikatzeko laguntzak (2020ko irailaren 3ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria, 173. zenbakia).*

*Azaldutakoagatik, Udalbatza Osoari proposatu zaio honako erabaki hau hartzea:*

**Lehenengoa.-** 2015-2020 aldirako EAEko Landa Garapeneko Programaren esparruan onartu ziren Leader eremuko landa-inguruko udalerrien ekonomia sustatu, garatu eta dibertsifikatzeko laguntzen deialdira aurkeztea. Eskaera honako obra hauetarako egingo da:

- *Berokuntzaren, etxeko ur beroaren eta aireztapenaren sistema hobetzeko proiektua, Zuhatzako 2. poligonoko 592. lursailean.*
- *Erabilera askotarako espazioak egokitzea, Luiaondoko La Torre kaleko 17. zenbakian.*

**Bigarrena.-** *Dirulaguntzaren eskaera aurkeztea, beharrezko dokumentazioarekin batera, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako Sailaren aurrean.*

*Arespalditzan.- JARDUNEKO ALKATEA.- Sin.: Iñigo Pinedo Vadillo.*

*Elektronikoki sinatutako dokumentua”.*

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) adierazi du haiek ez dituztela eskatzen dituzten jarduketara zehatzak ikusi, eta, ondorioz, abstenitu egingo direla.

Udalbatzari jakinarazi zaio sartzeari proposatzen den bi jardueren Memoriak bilkuraren deialdiaren eguneko gai-zerrendarekin batera zeudela, eta gaur goizean erabilera askotarako espazioen (Luiaondoko La Torre kaleko 17. zenbakian) obraren memoria igorri dela; izan ere, bilkuraren deialdian erantsita dagoena bertsio zahar bat zen, eta ez azkenekoa. Hori Arabako Foru Aldundiaren Foru Planari aurkeztutako dirulaguntzaren eskaerarekin batera bidali zena da.

Parte-hartzeak amaitutakoan, EAJ-PNV udal-taldeko bertaratutako kideen aldeko botoarekin eta EH BILDU udal-taldeko bertaratutako kideen abstentzioarekin, erabaki da transkribatutako erabaki-proposamena onestea, idatzita dagoen moduan.

### **9.- Eskaerak eta galderak.-**

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) adierazi du haiek premiazko puntu bat landu nahi zutela, Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) Udalean aurkeztutako mozioari buruzkoa.

Jakinarazi da mozio hori ez dela aurkeztu.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) honako galdera hauek egin ditu:

- *Aurreko bilkuran egin zuten galdera errepikatu du: Osakidetzak Luiaondoko osasun-etxearen kudeaketa hartu al du? Ez badu egin, Udala haiekin harremanetan jartzen saiatu al da kudeaketa bere gain hartzeko?*



Iñigo Pinedo Vadillo jarduneko alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Udalak egin dituela jada Osakidetzak kudeaketa hartzeko beharrezko izapide guztiak. Gehitu du orain haiek erantzun behar dutela, eta, oraingoz ez dakigula ezer ere.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) adierazi du haiek uste dutela bere momentuan Osakidetzak kudeaketa bere gain hartzeko konpromisoa hartu zuela, baina Udalak dirua ematen jarraitzen duela. Galdetu du beste ezer egiteko asmorik dagoen.

Iñigo Pinedo Vadillo jarduneko alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du hauteskundeak egin direla eta aldaketak egon direla Jaurларitzen. Halere, berriz galdetuko du Osakidetzan.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) galdetu du, ezezkoa jasotzekotan, Udalak hori onartuko duen.

Iñigo Pinedo Vadillo jarduneko alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du uste duela Osakidetzak bere gain hartzeko asmoa zuela, ea mantentzen duen.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) adierazi du, amaitzeko, eskertuko luketela ebazpena azkartzea; izan ere, bitartean, Udalak ordaintzen jarraituko du.

- Adierazi du 2020ko irailaren 15eko 11:00etan “Laila Eskolaren” aurkezpena egin zela, eta bertan egindako argazkietan zinegotzi liberatuak soilik agertzen direla; izan ere, gainerakoek ezin dute bertaratu, lan-kontuak direla eta. Ondorioz, bilkura horiek arratsaldeetan egiteko eskatu du.

Susana Martín Benavides zinegotzi andreak (EAJ-PNV) adierazi du berak ere arloko arduraduna den zinegotzi gisa joan nahi izanzen zuela, baina, ezin izatekotan, aipatutako kasuan gertatu bezala, goizez egin behar dela.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) adierazi du berak ez duela esan nahita egin zenik.

Iñigo Pinedo Vadillo jarduneko alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du prentsaurreko bat dela eta horrelakoak normalean goizean egiten direla; gaineratu du Aldunditik Berdintasun zuzendaria zetorrela eta uste duela Berdintasun saileko teknikariak horregatik antolatu zuela goizean.

- Galdetu du elkarteen dirulaguntzen deialdiaren oinarriak argitaratu diren; horiek otsaileko bilkuran onetsi ziren. Gaineratu du orain ez dakiela elkarteek denbora izango duten eta ezer egin nahiko duten urtea amaitu baino lehen. Adierazi du bere taldea abstenitu zela ez zeudelako ados partidako diruaren esleipenarekin (35.000,00 euro).

Montse Angulo Solloa zinegotzi andreak (EAJ-PNV) adierazi du irailaren 23an aterako direla. Esan du COVID-19aren pandemiak dena geldiarazi duela, deialdi hau barne. Gehitu du kultura-teknikariaren LEIaren kontua ere sortu dela eta ordezkoa sartzean gaia berriz ere mugitzen hasi dela. Dena den, elkarte gehienek ez dute ezer egingo aurten.



Marian Mendiguren Mendibil (EH BILDU) zinegotzi andreak adierazi du hilabete egon direla teknikaririk gabe.

Montse Angulo Solloa zinegotzi andreak (EAJ-PNV) erantzun du baietz, hilabete inguru izan dela, baina, edonola ere, abuztuan ezin zela argitaratu jendea oportretan egon zitekeelako eta jakin gabe geratu zitezkeelako.

Iñigo Pinedo Vadillo jarduneko alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du uste duela hori Batzordean ere esan zela.

- Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) adierazi du berak uste duela Batzordean esan zela, halaber, lehiaketan gaia aztertuko zela; galdetu du hori bideratuta dagoen.

Montse Angulo Solloa zinegotzi andreak (EAJ-PNV) adierazi du hori dela bere asmoa, eta alkatea berriz etortzean, kudeaketari berriz ekingo zaiola, nahiz eta barneko lana egiten ari diren.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) adierazi du, urte batean ez itzultzen ez bada, ez dela ezer egingo.

Iñigo Pinedo Vadillo jarduneko alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du goiz itzultzea espero dutela.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) uste du orain dela asko egon beharko lukeela eginik.

Iñigo Pinedo Vadillo jarduneko alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du egungo osasun-egoerak leku bakoitzeko edukierak aztertzea eskatzen duela, eta, ondorioz, zuhurrak izan behar direla, egindako jolastxokoekin gertatutakoa aintzat hartuta.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) adierazi du bere taldea udalekuak egitearen aldekoa zela, eta kutsatzeak egon zirela, baina, lantegietan ere, adibidez, kutsatzeak badaudela. Gaineratu du orain ez dagoela eskolaz kanpoko jarduerarik ezta eskola-kirolik ere.

Koldo Mendioroz Goldaraz zinegotzi jaunak (EH BILDU) esan du Gipuzkoa eta Bizkaian badagoela eskola-kirola.

Iñigo Pinedo Vadillo jarduneko alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du orain ez dagoela ez eskola-kirolik ez eskolaz kanpoko jarduerarik ikastetxe batean ere. Bestalde, adierazi du bereizi behar direla aisialdia eta araututako prestakuntza, azken hori nahitaezkoa delako.

Montse Angulo Solloa zinegotzi andreak (EAJ-PNV) esan du ez direla esaten ari egingo ez direnik, baina zuhurrak izan behar direla.

Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) adierazi du bere taldea udalekuak egitearen alde zegoenean, horiek ahalik eta seguruen egitea nahi zuela; hainbat lokal aztertu zituzten eta, hala ere, ez egitea erabaki zuten.





Susana Martín Benavides zinegotzi andreak (EAJ-PNV) adierazi du segurtasuna berrezartzen denean, eskola-kirola irekiko dela.

Iñigo Pinedo Vadillo jarduneko alkate jaunak (EAJ-PNV) esan du Batzordean adierazi bezala, ikastaroak modu seguruan antolatzeko konpromisoa aztertu behar dela, baita zeintzuk diren bideragarriak ere. Konpromiso hori mantendu egiten da.

- Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) adierazi du udal-hauteskundeak egin ondorengo agintaldiaren lehen urtearen ondoren, horren inguruko balantzea egingo luketela. Idatzi bat irakurri du, eta honako hau dio:

*“EH BILDUK, beste behin, udalerriko kudeaketaren funtzionamendua salatu nahi du; izan ere, oposizioko taldeen parte-hartzearekiko eta ekarpenekiko gutxiespena etengabekoa dela sumatu dugu. Halaber, aldi berean, EAJren kudeaketak, gehiengo osoa duenak, frogatu du ez duela batere jarduerarik gauzaten, bereziki, oso sentikorrek diren kultura, hezkuntza eta euskara arloetan. Horietan, erabat beharrezkoak diren gaiak baino ez da lantzen ari, eta, askotan, inprobisatzen ari da.*

*Aipatutako azken batzordeak hilabeteetan bildu gabe egon ondoren, irailean ospatu dira gabestia nabarmenekin edukien aldetik. Badakigu egoera berezi batean gaudela, COVID-19aren ondorioz, baina ez da ulergarria hilabeteak pasa ondoren lotuta ez dauden ikastaroen proposamen batekin baino ez agertzea. Ez dago bestelako ekitaldi kulturalik egiteko proposamenik, ez dago euskararen atalean ikastaroak bultzatzeko ideiarik... Ez dago ezer berri, ez dago gaiei beste buelta bat ematen dioten proposamenik, ez dago planteamendu berritzailerik... eta horrek paralisi egoera argia marrazten du.*

*Gobernu Taldeak ez du ezer berririk aurkeztu, ez du ezer lotu eta oraingoa iazko proposamenaren berdina da, kudeaketa berdina berriz, ideia berdina...*

*Oso larria iruditzen zaigu, horrek erabateko gelditasuna erakusten duelako eta Udalaren funtzioa erabat utzita dagoela adierazten duelako; ez dira kultura-jarduerak sustatzen, ezta hezkuntzakoak edo euskara ikastekoak... Arlo horietan, ez dago inolako dinamizaziorik, ez dago lanketa berririk.*

*Are larriagoa iruditzen zaigu, horri lotuta bi egoera berezi sortu direlako:*

*-Arloen kudeaketa banatuta duten zinegotziak, guztira, zazpi dira; hau da, zinegotzi bakoitzak arduraren handiagoa izan beharko luke, arloetan gehiago sakondu beharko luke eta ekimen gehiago egin beharko lirateke... Bestalde, ez da ezer berririk proposatzen eta ez zaio oposizioari ekarpenak egiteko aukerarik ematen, gainerako taldeekiko etengabeko gutxiespena gertatzen delako. Gaiak ez dira batzordean lantzen, ez dira azaltzen erabakiak hartzeko arrazoiak, ez da konponbiderik bateratzen, ez da batasunik bilatzen. Izan ere, EAJk Aiaran gehiengo osoa zuen garaiarekin bat balitz bezala, bere zazpi botoekin egin eta desegiten dute. Gauzaten duten praktika da erabakia aurkeztu eta bozkatzeko. Oso eroso izan daiteke, baina ez da batere parte-hartzailea, ezta demokratikoa ez osasuntsua ere Aiararen garapenerako.*

*Duela gutxi gertatutako beste adibide bat jartzearen, gure eskolak, Etxaurren Ikastolak, ikasturtea nola hasi duen begiratu besterik ez dugu. Garrantzi handiko gaia da eta batzorde espezifiko batean landu beharko litzateke, komunitateko eragileekin,*



*hezkontza-eragileekin eta Udalbatzako taldeekin. Hori egin beharrean, alkatea eta ikastetxeko zuzendaritza bakarrik elkartu dira. Izango dugun informazioa alkateak emango diguna izango da, baina, datu horiekin, ezin dugu ekarpenik egin. Ez litzateke hobeia izango EH Bildu eta Aiara Batuz taldeen ordezkartzek parte hartzea eta egoeraren diagnosis zuzenean jasotzea eta gauzatu daitezkeen neurriak antolatzean ahotsa izatea?*

*Gauza bera gertatzen da kontratazio berrien beharrarekin... Gertatzen ari dena da erabaki batekin iristen ari zaretela eta gero horren arrazoiak ematen dituzuela; uste dugu alderantziz izan beharko litzatekeela: egoera azaldu eta egon daitezkeen konponbideak eztabaidatzea. Zazpi botok bermatu egiten dute zuen aukera aurrera aterako dela, baina gehiengo oso hori ez litzateke gainerakoak alde batera uzteko erabili beharko”.*

Iñigo Pinedo Vadillo jarduneko alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du Gobernu Taldean zazpi direla, eta hemen daudela bozkatu egin dituztelako, guztiontzat gobernatzeko, hori baita ordezkartza demokrazian. Batzordeetan gainerako taldeak gutxiesteari dagokionez, adierazi du hori ez dela egia, eta gaineratu du Batzordeak lan egiteko gune direla, proposamenetara irekita daudela, eta, orain arte, ez dela inongo ekarpenik egon EH BILDUren aldetik foro horretan (bertan egin behar dira ekarpenak). Horrez gain, adierazi du osoko bilkuran Batzordean landutako gauza gehienak errepikatu ohi direla. Gaineratu du beste gauza bat dela egindako erabakiak bilkurara eramatea eta bozkatzea, eta hori egitean, gehiengoak irabaztea. Adierazi du EAJk proposamenak egin behar dituela; oposizioko taldeek gustuko izan ditzakete edo ez, baina, kasu horretan, proposamen alternatiboak egin beharko lituzkete.

Koldo Mendioroz Goldaraz zinegotzi jaunak (EH BILDU) adierazi du bilkuran hitz egiten dutela, jasota geratzea nahi dutelako eta herritarrek dena jakitea nahi dutelako.

Koldo Mendioroz Goldaraz zinegotzi jaunak honako galdera hauek egin ditu:

- Aiarako banda zabalaren gaia konpontzea nahi du, online klaseak egiten hasiko direlako eta banda zabala ez duenak ezingo duelako ikasi.
- Zorroza Gestión enpresari dagokionez, adierazi du EH BILDUri ez zaizkiola interesatzen arazo asko dituzten enpresak. Gaineratu du enpresa horretan gertatzen denak kezkatzen duela, jarduerak arautzen dituen araudia saihesten saiatzen ari delako. Amaitzeko, esan du legea betetzekotan, bera enpresa egotearekin ados egongo litzatekeela, baina hori ez bada horrela, ez zaiola gustatzen.
- Koldo Mendioroz Goldaraz zinegotzi jaunak Gorobelen aurkitutako animalien hilerriari dagokionez adierazi du Aiaraldean argitaratzeaz gain, landu egin behar zela. Gehitu du jakin nahiko zukeela ermandadeak zein neurri hartuko dituen, ez zehapen-neurriak, baizik eta prebentziokoak.

Gorobeekin jarraitzeko, adierazi du oraindik ez dela egin Aialurrek egin beharreko Kudeaketa Plana, baina urte asko daramatzala egiten.



Mandagua ibaiko sastraka kentzeari dagokionez, jakin nahi du garbitzea bakarrik den edo leheneratzea ere barne hartuko den.

Bere parte-hartzea amaitzeko, Udalbatza zoriondu du bilkura honen ordua aurreratzea erabakitzeagatik, ondoren Tubacex enpresako langileen manifestaziora joan ahal izateko, haiek babesteko.

Tubacex enpresaren gaiari dagokionez, Iñigo Pinedo Vadillo jarduneko alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du sinatutako idatzia egin ondoren, Laudion egotea beharrezkoa dela.

Banda zabalaren gaiari dagokionez, Iñigo Pinedo Vadillo jarduneko alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du aurreko legegintzaldian azaldu zitzaizela administrazio-batzar guztien buruei arlo horretan Udalak ezer gutxi egin dezakeela, hori zabaltzea hiru estamenturen araberrakoa delako: Eusko Jaurlaritza, Arabako Foru Aldundia eta Estatuak; horregatik da konplexua kudeaketa. Udalak egin dezakeen gauza bakarra da informazioa bildu eta zabaltzea, eta hori da egiten duena. Gehitu du, herritar batek ez badu bere lursailetik igarotzen uzten, Udalak ezin duela ezer egin. Horrez gain, adierazi du jakin behar dugula banda zabala ez dela soilik zuntz optikoa, banda zabala 4G ere bada, eta hori herritar guztiengana iristen da.

Zorroza Gestión enpresaren espedienteei dagokienez, Iñigo Pinedo Vadillo jarduneko alkate jaunak (EAJ-PNV) adierazi du oso kezkatuta daudela haiek ere, eta teknikariak Batzordean azaldu zuela zein egoeratan dauden. Halaber, esan du zehapenak ezartzen jarraituko dutela jarduera erabat legeztatzen den arte. Esan du haiek Osalani jakinarazi ziotela zein zen enpresaren egoera, horrek beharrezkoa egiteko langileen babesari begira. Adierazi du 14an enpresaren arduradunekin eta horien abokatuekin bilera bat egin zutela, eta haiek beren jarrera mantentzen dutela, nahiz eta Udalak argi utzi zien zer egin behar zuten.

Unai Campo Arenaza zinegotzi jaunak (EAJ-PNV), Gorobelen aurkitutako hildako animaliei dagokienez, adierazi du basozaina dela horren gaineko eskumenak dituen pertsona, eta Ertzaintzari horren berri eman ziola, baina ez dakitela beste ezer.

Koldo Mendioroz Goldaraz zinegotzi jaunak (EH BILDU) uste du neurri zuzentzaileak ezarri ahalko lirakeela.

Unai Campo Arenaza zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) esan du haiek prentsari esker jakin zutela, EH BILDUK bezala.

Koldo Mendioroz Goldaraz zinegotzi jaunak (EH BILDU) aipatu du ez duela hau berriz gertatzerik nahi, eta Aialurri eskatzea nahi du neurri zuzentzaileak proposatzeko hori ekiditeko. Neurri horiek Kudeaketa Planean sartu ahalko lirake.

Unai Campo Arenaza zinegotzi jaunak, (EAJ-PNV) Mandagua ibaiko sastrakak kentzeari dagokionez, esan du 15 HA ez-jarraiak direla, eta basozainak adieraziko duela zer kendu eta zer ez kendu.



Koldo Mendioroz Goldaraz zinegotzi jaunak (EH BILDU) esan du Kudeaketa Planean ekarpenak egin ahal dituztenean, pozik egingo dituztela. Bestalde, jakinarazi du beste arazo batzuk daudela Gorobelego urarekin.

Unai Campo Arenaza zinegotzi jaunak (EAJ-PNV) erantzun du ongi funtzionatzen duten baltsak daudela, baina ur gutxi dagoela eta ponpa batek huts egin zuela. Bestalde, aipatu du ez bazaie abisatzen ihesak daudela, ezin dituztela konpondu, eta abisatzen zaien bakoitzean igotzen direla.

Koldo Mendioroz Goldaraz zinegotzi jaunak (EH BILDU) adierazi du Kudeaketa Planean hori guztia jaso beharko litzatekeela.

Iñigo Pinedo Vadillo jarduneko alkateak (EAJ-PNV) adierazi du ahalik eta azkarren jarduten saiatzen direla.

Jorrazeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate-udalburuak bilera bukatutzat eman du hemezortziak eta hogeita hamar minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezen, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hogeiko irailaren hamazazpian.

O.E.

JARDUNEKO ALKATE-UDALBURUA

IDAZKARIA

Sin.: Iñigo Pinedo Vadillo.

Sin.: M<sup>a</sup> Del Carmen Rojo Pitillas.